

## ETIKA PUBLIKORAKO BATZORDEA

GAIA: 1/2015

**EUSKAL IRRATI TELEBISTA-RADIO TELEVISIÓN VASCA (EITB) ERAKUNDE PUBLIKOAK SUSTATUTAKO ENPLEGU-DEIALDI PUBLIKOARI (EDP) BURUZ JARRITAKO SALAKETA ANONIMOA EZ ONARTZEA, ETIKA ETA JOKABIDE KODEARI (EJK) FORMALKI ATXIKI EZ ZAIZKION PERTSONEI ERAGITEN BAITIE.**

1.- 2015eko urtarrilaren 14an, (...) [@yahoo.com](mailto: @yahoo.com) helbidetik bidalitako posta anonimoa sartu zen Etika Publikorako Batzordearen postontzi elektronikoan. Posta hartan "EITBk berriki egin duen enplegu-deialdi publikoaren emaitzengatik kezkatutako langile-talde batek" Batzordeari galdetzen zion ea "Etika Kodearen ikuspuntutik" egoki den "enplegu-deialdi publikoa deitzeko eta egiteko ardura bere gain hartu duen zuzendaritzako pertsonen lanpostuak esleitu izana –nahiz eta pertsona horiek EITBko zuzendaritzaren konfiantzazko pertsona izateagatik zuzendaritza-karguetarako aukeratu, zuzendaritza horrekin zuzendaritza-estrategiak partekatu, eta ia egunero harekin bildu–".

2.- Idazkiaren amaieran, hainbat pertsona-izenen zerrenda ageri da. Pertsona horiek dira, antza, bi baldintza hauek betetzen dituztenetako batzuk: "enplegu-deialdi publikoa deitzeko eta egiteko ardura bere gain hartu duen zuzendaritzako kide izatea" eta deialdi horretan "lanpostu bat eskuratu izana". Hona izen-zerrenda:

(...)

(...)

(...)

(...)

(...)

(...). *Besteak beste.*

3.- Goian aipatutako posta elektronikoa salaketa anonimoa da, bere burua "EITBk berriki egin duen enplegu-deialdi publikoaren emaitzeekin kezkatutako langile-taldea" bezala definitu duen taldeak egina. Salaketa horretan ez da jakitera eman hizpide dugun taldea osatzen duten

"langileen" identitatea; ez da adierazi erakundeko bertako langileak diren edo ez; eta ez dute argitu zer arrazoiengatik duten interesa auzian, ez bada "kezkatu" daudela "EITBK berriki egin duen enplegu-deialdi publikoan esleitutako lanpostuen emaitzengatik". Era askotako arrazoiak izan ditzakete, berez, kezkatu egoteko: baliteke moralitate publikoa eta erakundearen irudi ona zaintzeko nahi altruista eta eskuzabala izatea; edo, aitzitik, auzitan den hautatze-prozedurari amaiera ematen dion ebazpenaren eduki materiala haien kalterako izanagatik interes pertsonala eta zehatza izatea. Horrelako ezer ez da zehaztu idazkian; non, arestian aipatutako ondorioetarako, nahikoa informazioa eta argumentuak ematen ez den.

4.- 3/2014 Erabakian adierazi genuenari atzera helduz, aurrerago emango ditugun zenbait xehetasun baxter, ezerk ez du galarazten Etika Publikorako Batzorde honek salaketa anonimoak onartzea. Are, Etika eta Jokabide Kodeak ez du horri buruzko arau zehatzik eman. Ez ditu horiek baimentzen, ezta espresuki debekatzen ere. Baina kontuan izanik EPB honek zaindu behar duela euskal sektore publiko autonomikoko kargu publikodunek eta parekatuek egiazki bete ditzatela –EJKn xedatutakoaren arabera– haien jarduna arautu behar duten balioak, printzipioak eta jokabideak, printzipioz kasu egin beharko diegu balio, printzipio eta jokabide horien kontrakoak izan daitezkeen jarduketara edo jokabide ororen jakinean jartzen gaituzten arrasto eta berri guztiei. Baliozko informazioak alde batera uzten baditugu horiek nork eman dituen ez dakigulako, zigorgabetasun-egoeran utz ditzakegu EJKren kontrako zenbait jardura, Eusko Jaurlaritzako kargu publikoen eta parekatuen onestetasunaren eta zintzotasunaren gainean irudi negatiboa sor dezaketenak, eta Kodearen azken xedea honda dezakegu.

5.- Hala ere, aurreko paragrafoan aipatutako Erabakian adierazi genuen moduan, bi gauza argi izan behar ditugu oinarritzko arau horren inguruan:

a) Bistakoa denez, salaketa anonimoetan ezin zaio salatzaileari eskatu hasieran aurkeztutako informazioa osa dezala, eta beraz, ezinbestekoa da hasierako dokumentua garbia eta zehatza izatea, eta hura ez oinarritzea zehaztu gabe adierazten diren jardueretan eta zehaztu gabe aipatzen diren eta nekez identifikatu daitezkeen egileei buruzko aipamen abstraktu eta lausoetan. EPB ez da fiskaltza ahalguztidun moduko bat, eta ez dago gaituta muga subjektiborik edo objektiborik gabeko ikerketak egiteko Eusko Jaurlaritzako eta haren tresna den sektore publikoko kargu publikoen eta parekatuen jardura erreal edo balizko jardura guztien egokitasun etikoaren inguruan, horien berri zuzenean izan, edo zeharka izan, edozein bitartekoren bidez.

b) Salatzaile batek modu anonimoan jardutea erabakitzen badu, *ipso facto* uko egiten dio ondoren alegazioak aurkezteko aukerari, EPB honek sustatutako jardueren prozedura kontraesankor bat sorrarazten badute ere.

6.- Gagozkigun kasu honetan, EPB honen esku-hartzea eskatu duten salatzaile anonimoek ez dute nahikoa informazio eman salatutako jarduketa publikoei buruz. Batzordeari bidali dioten idazkian galdetzen dute ea gertatutakoa zuzena den edo ez "Etika Kodearen ikuspuntutik", baina ez dute zehaztu EJK-ko zer arau zehatz hautsi ahal izan duten idazkian identifikatutako pertsona bakarrek; hain zuzen ere "EITBko zuzendaritzak zuzendaritza-karguetarako konfiantzaz hautatu dituen" eta "hizpide dugun hautaketa-prozesuan lanpostua esleitu zaien" pertsona horiek.

Ez dute eman, ezta ere, idazkian aipatutako pertsonen gorabehera profesionali buruzko zehaztasunik, ez bada "EITBko zuzendaritzaren konfiantzazko pertsona izateagatik zuzendaritza-karguetarako aukeratuak izan direla", "zuzendaritza horrekin zuzendaritza-estrategiak partekatzen dituztela, eta harekin ia egunero biltzen direla". Hala ere, eskatu diguten balioespen etikoa emate aldera, ezin dugu ahantzi salatzaileen arabera "EITBko zuzendaritzaren konfiantzazko pertsona izateagatik zuzendaritza-karguetarako hautatu diren" pertsona horiek lanpostu horiek aldi batez betetzeko irizpide objektiboei jarraituz hautatu izana, izan edo ez erakundeko profesionalak. Ez da garrantzi gutxikoa, ezta ere, dinamika pendular edo birakari baten ondorioz iritsi izana pertsona horiek hizpide ditugun karguetara, non zuzendaritza-talde bakoitzak, bere agintaldian, atsegin dituen "etxeko" profesionalak aukeratzen dituen; edo erakundetik kanpoko pertsonak kanpotik etorri izana dagozkien karguak betetzera, eta soilik eta eskusiboki konfiantza politikoko irizpideak oinarri hartuta izendatu direnak. Informazio hori alderatu eta, hala badagokio, egiaztatu beharko litzateke erakundeko zuzendaritzak eta, bereziki, salaketan aipatutako pertsonak eman lezaketen informazioarekin. Horrela, informazio hori eskutan ebatzi ahal izango litzateke erakundeak deitutako hautaketa-prozesuan parte hartzeko haien erabakia bat datorren aldi baterako langile orok bere lan-egoera finkatzeko duen legezko eskubidearekin; edo, aitzitik, lanpostua legez kontra eta etikoki zilegi ez den moduan ziurtatzeko bidea izan den, iskin edo iruzur eginez enplegu publikoa lortzeko prozesua arautu behar duten berdintasun-, merezimendu- eta gaitasun-printzipioei.

Azken buruan, salaketan ez dira aipatu haren emaitza zalantzan jartzen den aukeraketa-prozeduraren arauak –epaimahaiaren osaera, hura osatzen duten pertsonen egokitasuna, egindako proben objektibotasuna, eta abar—. Salaketan ez da esaten, ezta ere, arau horiek betetzera deitutako pertsonak egiazki bete dituzten. Bi alderdi horiek garrantzi handikoak dira salaketan auzitan jarri diren jarduketak etikoki zuzenak izan diren edo ez aztertzeko.

7.- Gai horiek guztiak argitzeko, berez, idazkian aipatutako pertsonari entzun beharko genieke. Prozedura hori, alabaina, kontraesankorra da, 5. paragrafoan aipatu dugun moduan, salatzaileak pertsona anonimoak izanik ezin izango baitute ezer gehitu, horretara uko egin baitute beren burua identifikatu gabe jarri dutenean salaketa. Edonola ere, soilik era horretako prozedura baten bidez zehaztu ahal izango lirateke auzitan den hautaketa-prozesuaren inguruabarrak, hura etikoki okerra den aztertu ahal izateko.

8.- Edozer izapide egin aurretik, hala ere, gai bat argitu beharra dago. Idazkian aipatutako pertsonak ez dira, berez, ez EAEko Administrazio Orokorreko edo Erakunde Administrazioiko goi-kargudunak, ez eta hari atxikitako, lortutako edo haren mendeko erakunde publikoetako zuzendaritza-karguak ere. Hortaz, beste edozer izapide bideratu aurretik, egiaztatu beharra dago 2013ko maiatzaren 28an Gobernu Kontseiluak onartutako EJK izenpetu dutenen artean diren salaketan adierazitako pertsona horiek, kasu horretan soilik izango bailitzateke egoki pertsona horiek EJKren atalen bat hautsi duten aztertzea. Gai horri helduz, ez da alferrikakoa gogoratzea EJK ez dela indar loteslea duen arau juridikoa, printzipio, balio eta jokabide etikoen katalogoa baizik, eta hari atxiki zaizkion pertsonentzat baino ez da nahitaez bete beharrekoa.

9.- Funtzio Publikoko Sailburuordetzako datuen arabera, idazki anonimoan aipatutako pertsona guztietatik –hau da (...) jauna, (...), (...), (...), (...) eta (...)- azken hori baino ez zitzaion lotu, bere egunean, EJKri.

Gaur egun, hala ere, azken pertsona hori ere ez dago Eusko Jaurlaritzak ekainaren 26ko 1/2014 Legearen manamenduz onartutako "Kargu Publikodunen Katalogoan" (1/2014 Legea, ekainaren 26koa, kargu publikodunen jokabide-kodea eta haien interes gatazkak arautzen dituen). Hortaz, nahiz eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko aldi baterako langile izan, ez dago zuzendariaren edo hortik gorako mailan eta, horrenbestez, aipatutako lege-arau horretako 2.2. artikuluan zehaztutako aplikazio-eremutik kanpo dago. Artikulu horretan zehaztu da, hain zuzen ere, lege hori aplikatuko zaiela "zuzendariaren pareko edo goragoko maila duten" behin-behineko langileei. 2013ko irailetik 2014eko abendura arteko aldiaren txostenean adierazi genuen moduan, hasiera batean EJKri atxiki arren gerora lege horren aplikazio-eremutik kanpo geratu ziren pertsona horiek ez daude egun EJKri atxikitako 340 pertsonen artean.

Labur esanda, salaketa-idazkian aipatutako sei pertsonetatik bakar bat ere ez dago Eusko Jaurlaritzako goi-zuzendaritza exekutiboan. Hura da EJKren hartzaile esklusiboa, eta EJK-ko 2. eta 18. ataletan xedatutakoaren arabera, EJKri ez lotzeak kargutik kentzea dakar.

Hori guztia aintzat hartuta, hauxe da EPBk hartutako

**ERABAKIA:**

Ez onartzea "EITBk berriki egin duen enplegu-deialdi publikoaren emaitzekin kezkatutako langile-talde batek" egindako salaketa anonimoa, EJKren aplikazio-eremutik kanpoko pertsoneri eragiten baitie.



**Josu Iñaki Erkoreka Gervasio**  
**Etika Publikorako Batzordeko burua**

**Vitoria-Gasteizen, 2015eko otsailaren 4a**